

8. Bañan eder guzia... Oianean elor,  
pago, aritz, otarra, arantzadi naas...  
aizetikan txoritxo kantari maitekor,  
bera nazkagarritzko sugea arraztakaz...
9. Oro Jaungoikoaren izakia duzu ;  
basoaren antzeko gizonen bizia ;  
neretzat dana daukat Jainkoaren musu,  
dala lore-ikutu, dala arantz-ziria.
10. Maite, maite dut, nere bizia dana dan ;  
maitegai maitagarri nonnai ager neri.  
Jainkoak bere esku jarri du guzian ;  
poz eta min neretzat berdin laztangarri.

## LAUSOA

### *Otsalar*

Endaitzaren jabe eztan mariñel baten lez,  
arantzaz jositako txaramel leizak  
zear, bultzaz narama lauso illunez,  
zentzunikan ez duen bizitza korrontak.

Estutxo esituriko bide latza danez,  
oro illunak dira izadi egiak ;  
bere bultzakaderi ezin egin iges :  
gu, bere asmu erageon jostallu txiroak.

Bizitza loturik da inguru garratzez.  
Itzali zaizkidala uste ameskorrak.  
Biotzak eztirala zaartzen ? ezetz ? ez :  
baña, nere onek, a ! nolako zauritzak.